1.– Gizarteratzeko Euskal Planak hiru urteko iraupena izango du eta bazterkeria jasaten duten pertsonak gizarteratzea lortzeko eskumena duten administrazioen esku-hartzea eta jarduera bideratuko duten ildoak jasoko ditu, modu koordinatu eta orokorrean.

2.– Gizarteratzeko Euskal Plana Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordeak idatziko du eta Eusko Jaurlaritzak onartuko, aldez aurretik Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrak derrigorrezko txostema emanda. Eusko Jaurlaritzak gero Eusko Legebiltzarrera bidaliko du, komunikazio moduan.

*16. atala.–* Gizarteratzeko programak.

Gizarteratzeko Euskal Plana gauzatzeko, administrazioek, bakoitzak bere eskumenen barruan, hainbat programa idatzi eta eramango dituzte aurrera.

IV. ATALBURUA
GIZARTERATZEKO GUTXIENEKO DIRU SARRERA

*17. atala.–* Definizioa eta ezaugarriak.

1.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera aldianaldian emango den laguntza ekonomikoa da, eta helburua bizi ahal izateko oinarrizko gastuei aurre egiteko behar beste baliabide ekonomiko ez dutenen premiak betetzea da.

2.– Laguntzaren ezaugarriak:

a) Indarrean dagoen legeriaren arabera laguntzaren titularrak edo honen elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko beste edozein kidek jaso ditzakeen era guztietako baliabide eta gizarte-laguntza ekonomikoen osagarria izango da laguntza hau, eta subsidiarioa izango da.

b) Elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko kide guztientzako emango den laguntza izango da, eta janariak erosteko erabiliko da.

c) Besteri eman ezina izango da, eta ondorioz, ezin izango da:

–obligazioen berme gisa eskaini.

–osorik edo zati bat eman.

–konpentsazio edo beherapenik izan, non eta ez den behar ez bezala eskuratutako laguntzak itzultzeko.

–erretenitu edo enbargatu, Estatu osorako legeriatik ezartzekoak diren legeetan aipatzen diren kasuetan eta lege horietan jartzen diren mugekin izan ezik.

*18. atala.–* Eskubidedunak.

1.– Lege honetan jasotzen diren baldintzak beteta, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera eskuratu ahal izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonek:

*Artículo 15.–* Plan Vasco de Inserción.

1.– El Plan Vasco de Inserción, que tendrá carácter trienal, recogerá de forma coordinada y global las líneas y directrices de intervención y actuación que deben orientar la actividad de las Administraciones competentes para la consecución de la inserción de las personas en situación de exclusión.

2.– El Plan Vasco de Inserción será elaborado por la Comisión Interinstitucional para la Inserción, y aprobado por el Gobierno Vasco previo informe preceptivo de la Comisión Permanente para la Inserción. El Gobierno lo elevará como comunicación al Parlamento Vasco.

*Artículo 16.–* Programas de inserción.

El Plan Vasco de Inserción se ejecutará mediante los diferentes programas que elaboren y desarrollen las distintas Administraciones en el ámbito de sus competencias.

CAPÍTULO IV
INGRESO MÍNIMO DE INSERCIÓN

*Artículo 17.–* Definición, naturaleza y caracteres.

1.– El ingreso mínimo de inserción es una prestación periódica de naturaleza económica dirigida a cubrir las necesidades de aquellas personas que carezcan de recursos económicos suficientes para hacer frente a los gastos básicos para la supervivencia.

2.– Esta prestación:

a) Tendrá carácter subsidiario y, en su caso, complementario de todo tipo de recursos y prestaciones sociales de contenido económico previstas en la legislación vigente que pudieran corresponder al titular o a cualquiera de los miembros de su unidad económica de convivencia independiente.

b) Se otorgará con carácter alimenticio en beneficio de todos los miembros de la unidad económica de convivencia independiente.

c) Será intransferible, y por tanto no podrá:

–ofrecerse en garantía de obligaciones.

–ser objeto de cesión total o parcial.

–ser objeto de compensación o descuento, salvo para el reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas.

–ser objeto de retención o embargo, salvo en los supuestos y con los límites previstos en la legislación general del Estado que resulte de aplicación.

*Artículo 18.–* Titulares del derecho.

1.– Podrán ser titulares del derecho al ingreso mínimo de inserción, en las condiciones previstas en la presente ley, aquellas personas que reúnan los siguientes requisitos:

a) Elkarbizitzako unitate ekonomiko independientea osatzea laguntzaren eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez. Epe hori bete beharrik ez dute izango ondorengoek:

–Ekonomikoki beren kargu adin txikikoak edo ezintasunen bat duen pertsona dutenek, edo beste pertsona batekin ezkonduta daudenek edo ezkontzaren antzeko beste lotura-moduren baten bidez harreman iraunkorra dutenek.

–Elkarbizitzako unitate ekonomiko berria osatu dutenek, banandu, dibortziatu edo ezkontzaren nulitatea lortu dutelako (ezkonduta egonda nahiz izatezko bikotea osatzen zutela), betiere unitate berria lehenagoko elkarbizitzako unitate ekonomiko independientea osatzen zuten pertsona berek bakarrik osatzen baldin badute.

–Elkarbizitzako unitate ekonomiko independiente berria osatzen dutenek, gurasoak, tutoreak edo legezko ordezkariak hil direlako.

b) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten herrietakoren bateko Erroldan azaltzea eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez.

Europako Batasuneko herritarrak ez direnen kasuan, beharrezkoa izango da aurreko lerroaldeko baldintzak bete edo autonomia-erkidegoan gutxienez hiru urtez legez bizi izan direla erakustea, eta hamar urte horietatik hamabi hilabete justu eskabidea egin aurrekoak izan beharko dira, epe laburragoak bete beharko direnean izan ezik, nazioarteko hitzarmenetan esaten dena beteta edo, halakorik ezean, elkarrekikotasun-printzipioaren arabera.

c) Behar beste baliabide ez izatea. Behar beste baliabide ez dagoela pentsatuko da ondorengo baldintza guztiak betetzen baldin badira:

–Hileroko irabaziak kasuan kasuko gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren hileroko zenbatekoa baino txikiagoak izatea, lege honen VI. atalburuan ezartzen denaz bat.

–Lege honen 3.2 atalean eta hori garatuko duten araudietan jasotakoaren arabera elkarbizitzako unitate ekonomiko independientetzat har daitezkeen pertsonen kasuan, pertsona horiek etxebizitza edo alojamendu berean bizi badira beste pertsona batzuekin (3.1.b atalean aipatutako lotura-moduren batekin), pertsona horiek guztiek, kasuan kasuko denbora-tarterako, dituzten irabaziak legokiekeen gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren gehienezko kopurua bider bost baino txikiagoak izatea; hori guztia inolako baliabiderik ez baldin badute eta aipatutako lotura-moduen arabera elkarrekin zenbat pertsona bizi diren kontuan izanda.

–Lege honen VI. atalburuan ezartzen denaren arabera, dena delako ondarea izatea, baina ondare hori legokiekeen urte osoko gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera bider lau eginda ateratako kopurua baino txikia-

a) Constituir una unidad económica de convivencia independiente, como mínimo con un año de antelación a la fecha de presentación de la solicitud. Quedan exceptuados de cumplir este plazo:

–quienes tuviesen económicamente a su cargo a menores o a personas con minusvalía o estuviesen unidos a otra persona por matrimonio o por otra forma de relación permanente análoga a la conyugal.

–quienes constituyeran una nueva unidad económica de convivencia independiente por separación, tanto matrimonial como de parejas de hecho, divorcio o nulidad matrimonial, siempre que la nueva unidad esté exclusivamente constituida por personas integrantes de la unidad económica de convivencia independiente anterior.

–quienes constituyeran una nueva unidad económica de convivencia independiente por fallecimiento de los padres, tutores o representantes legales.

b) Figurar en el Padrón de cualquier municipio de los integrados en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco al menos con un año de antelación a la fecha de presentación de la solicitud.

Para los ciudadanos que no lo sean de la Unión Europea, será necesario cumplir las condiciones previstas en el párrafo anterior o acreditar tres años de residencia legal en la Comunidad Autónoma, de los cuales doce meses han de ser inmediatamente anteriores a la solicitud, salvo que, según lo establecido en los tratados internacionales o, en su defecto, según el principio de reciprocidad, deban considerarse plazos inferiores.

c) No disponer de recursos suficientes. Se considerará que no se dispone de tales recursos cuando se cumplan todas las condiciones siguientes:

–Disponer de unos rendimientos mensuales, determinados conforme se establece en el Capítulo VI de esta ley, que sean inferiores a la cuantía mensual del ingreso mínimo de inserción correspondiente.

–En el supuesto de personas que, siendo susceptibles de ser consideradas unidad económica de convivencia independiente en virtud de lo previsto en el artículo 3.2 de esta ley y reglamentos de desarrollo, convivan en la misma vivienda o alojamiento con otras personas con las que mantengan alguno de los vínculos previstos en su artículo 3.1.b), disponer en conjunto todas ellas, para el periodo de tiempo que corresponda, de rendimientos propios cuyo valor sea inferior a cinco veces la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que les pudiera corresponder, en el supuesto de ausencia total de recursos, en función del número total de personas relacionadas entre sí por los mencionados vínculos.

–Disponer de un patrimonio, determinado conforme se establece en el Capítulo VI de esta ley, cuyo valor sea inferior a cuatro veces la cuantía anual del ingreso mínimo de inserción que les pudiera correspon-

goa izatea, betiere inolako baliabiderik ez baldin badute eta aipatutako lotura-moduen arabera elkarrekin zenbat pertsona bizi diren kontuan izanda.

d) 25 urte baino gehiago eta kasuan kasuko legerian zahartzaroa dela eta pentsio publikoa eskuratzeko jarritako gutxieneko adina baino urte gutxiago edukitzea.

Salbuespena izango dira 25 urtetik beherakoak, baldintza hauetan: gainerako baldintza guztiak beteta, ekonomikoki beren ardurapean baldin badituzte adin txikikoak nahiz ezintasunen bat duten pertsonak, edo aitarik edo amarik gabeko umezurtzak badira 25 urtez beherako horiek. Halaber, salbuetsitzat joko dira 25 urtetik beherakoak, gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte eta beste pertsona batekin ezkontzaz edo ezkontzaren antzeko harremanez loturik badaude sei hilabete lehenagotik gutxienez.

2.– Elkarbizitzako unitate ekonomiko independiente berean pertsona bat baino gehiago egonda ere laguntzaren titularra izateko baldintzak betetzen dituztenak, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera bakar bati baino ezin izango zaio eman.

*19. atala.*– Eskubidedunen betebeharrak.

Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera eskuratzeko eskubidedunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Emateko arrazoia izan diren egoerei aurre egiteko erabiltzea laguntza.

b) Lege honetan erabakitakoaren arabera, laguntza aldatu, bertan behera utzi edo amaitzea eragin dezaketen egoeren berri ematea.

c) Titularrak ohiko bizilekua aldatu egiten badu, horren berri ematea, gizarteratzeko hitzarmenean aurreikusita leudekeen berezitasunak baztertu gabe.

d) Akatsen bat dela eta eskuratutako edo dagokionetik gora eskuratutako kopuruak itzultzea.

e) Gizarteratzeko hitzarmena negoziatu, izenpetu eta betetzea administrazioarekin, lege honetako II. atalburuan aipatzen diren egoeretan eta moduan.

f) Administraziora joatea eta elkarlanean aritzea, hala eskatzen zaionean, gizarteratzeko hitzarmenean aurreikusita leudekeen berezitasunak baztertu gabe.

g) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren helburuen ondoriozko betebehar guztiak, araudi bidez zehaztuta baldin badaude.

*20. atala.*– Zenbatekoa zehaztea.

1.– Elkarbizitzako unitate ekonomiko independiente bakoitzari gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreratik hilero zenbateko diru-kopurua emango zaion jakiteko, eragiketa hau egingo da: pertsona bakar bati hilero emateko jarritako kopuruari araudi bidez ezarritako osagarri batzuk gehituko zaizkio, titularrarekin batera bizi den pertsona bakoitzeko (halakorik dagoenean).

der, en el supuesto de ausencia total de recursos, en función del número total de personas relacionadas entre sí por los mencionados vínculos.

d) Ser mayor de 25 años y menor de la edad mínima exigida por la legislación correspondiente para tener derecho a una pensión pública por vejez.

Quedan exceptuados los menores de 25 años que, reuniendo el resto de los requisitos, tengan económicamente a su cargo a menores o a personas con minusvalía, así como los huérfanos de padre y de madre. Igualmente se considerarán exceptuados los menores de 25 años que, reuniendo el resto de los requisitos, estuviesen unidos a otra persona por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal con al menos seis meses de antelación.

2.– En el supuesto de que en una misma unidad económica de convivencia independiente existieran varias personas que pudieran ostentar la condición de titular, sólo podrá otorgarse el ingreso mínimo de inserción a una de ellas.

*Artículo 19.*– Obligaciones de los titulares.

Son obligaciones de los titulares del derecho al ingreso mínimo de inserción:

a) Aplicar la prestación a la finalidad para la que se ha otorgado.

b) Comunicar los hechos sobrevenidos que, de conformidad con lo dispuesto en la presente ley, pudieran dar lugar a la modificación, suspensión o extinción de la prestación.

c) Comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual del titular, sin perjuicio, en su caso, de las peculiaridades que se hayan previsto en el convenio de inserción.

d) Reintegrar el importe de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida.

e) Negociar, suscribir y cumplir un convenio de inserción con la Administración, en los supuestos y términos previstos en el Capítulo II de la presente ley.

f) Comparecer ante la Administración y colaborar con la misma cuando sea requerido, sin perjuicio, en su caso, de las peculiaridades que se hayan previsto en el convenio de inserción.

g) Todas aquellas que se deriven del objeto y finalidad del ingreso mínimo de inserción y que se determinen reglamentariamente.

*Artículo 20.*– Fijación de la cuantía.

1.– La cuantía mensual del ingreso mínimo de inserción aplicable a cada unidad económica de convivencia independiente será el resultado de añadir a la cuantía mensual establecida para una unidad constituida por una sola persona los complementos que se establezcan reglamentariamente por cada miembro de más que conviva con el titular, si los hubiese.

2.– Pertsona bakar batek osatzen duen elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteak hilero zenbat jasoko duen eta titularrarekin bizi diren gainerako pertsona bakoitzeko zenbateko osagarriak eskuratuko diren Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean zehaztuko da, urtero.

3.– Elkarbizitzako unitate ekonomiko independiente bakoitzari eman beharreko gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren hileroko zenbatekoa oso-osorik emango da unitate horrek inolako baliabiderik ez duenean. Besterik gertatzen da unitate horrek baliabideren bat baldin badu, kasu horretan baliabideei dagokiena zenbateko horretatik kendu egingo delako, eta gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera kenketa hori egitearen emaitza izango delako, lege honen 38. atalean zehaztutako moduan.

4.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren hileroko zenbatekoa kontsumo-prezioen indizearen eta lanbidearteko gutxieneko soldataren igoeren arabera berraztertu beharko da, eta ezingo da izan indize horietatik gehien igotzen dena baino apalagoa.

*21. atala.–* Sortzapena eta ordaintzea.

1.– Eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita egingo da laguntzaren sortzapena.

2.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera hilabetea bete ondoren ordainduko da.

*22. atala.–* Eskubidearen iraupena eta aldian aldiko berrikusketak.

1.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea edukiko da laguntza emateko arrazoiek dirauten artean eta titularrak lege honetako 19. atalean aipatzen diren betebeharrak betetzen dituen artean.

2.– Eskumena duen organoak aldian-aldian berrikusi egingo ditu egoerak bere kabuz, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jaso ahal izatea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirauten edo ez ikusteko. Lan hori egiteko, laguntza jasotzeko eskubidea dutenei administrazioak eskatutako lekura joan eta elkarlanean aritzeko eskatu ahal izango zaie. Dena den, kasu guztietan urtean behin behintzat berrikusiko da laguntzak jasotzeko arrazoirik badagoen edo ez oraindik.

*23. atala.–* Zenbatekoa aldatzea.

Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa aldatzeko arrazoia izango da elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko kideen kopuruan edo laguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako baliabideetan gertatutako aldaketa. Zenbatekoa aldatzeko jardunbidea zehaztu egingo da.

*24. atala.–* Eskubiderik gabe uztea.

1.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera eskuratzeko eskubiderik gabe geratuko da eskubideduna ondorengo arrazoiengatik:

2.– La cuantía mensual para una unidad económica de convivencia independiente constituida por una sola persona, así como los complementos por cada miembro de más que conviva con el titular, serán fijados anualmente en la ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3.– La cuantía mensual del ingreso mínimo de inserción aplicable a cada unidad económica de convivencia independiente se otorgará en su integridad en el supuesto de que ésta carezca absolutamente de todo tipo de recursos. En caso contrario, se restarán de dicha cuantía los recursos mensuales de que disponga, procediéndose al abono del ingreso mínimo de inserción en la cantidad resultante de la diferencia, en los términos establecidos en el artículo 38 de esta ley.

4.– La cuantía mensual del ingreso mínimo de inserción deberá revisarse con arreglo a los incrementos del índice de precios al consumo y del salario mínimo interprofesional, no pudiendo resultar inferior al que más crezca de estos indicadores.

*Artículo 21.–* Devengo y pago.

1.– La prestación se devengará a partir del día siguiente al de la fecha de presentación de la solicitud.

2.– El pago del ingreso mínimo de inserción se efectuará por mensualidades vencidas.

*Artículo 22.–* Duración del derecho y revisiones periódicas.

1.– El reconocimiento del derecho al ingreso mínimo de inserción se mantendrá mientras subsistan las causas que motivaron su concesión y se cumplan las obligaciones previstas para los titulares en el artículo 19 de la presente ley.

2.– El órgano competente realizará de oficio revisiones periódicas para comprobar si se mantienen las causas que motivaron la concesión del ingreso mínimo de inserción. A tal efecto, podrá requerirse a los titulares del derecho a la prestación para que comparezcan ante la Administración y colaboren con la misma. En todo caso, se procederá al menos a una revisión anual del cumplimiento de los requisitos de acceso a la prestación.

*Artículo 23.–* Modificación de la cuantía.

Será causa de modificación de la cuantía del ingreso mínimo de inserción la modificación sobrevenida del número de miembros de la unidad económica de convivencia independiente o de los recursos que hayan servido de base para el cálculo de la prestación. Se determinará el procedimiento para la modificación de la cuantía.

*Artículo 24.–* Suspensión del derecho.

1.– El derecho al ingreso mínimo de inserción se suspenderá por las siguientes causas:

a) Eskubidea izateko eskatutako baldintzetakoren bat ez betetzea aldi batez.

b) Gizarteratzeko hitzarmen bat negoziatu edo izenpetzeari uko egitea, lege honetako II. atalburuan esaten den moduan.

2.– Era berean, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea bertan behera utzi ahal izango da titularrak edo titularraren elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko kideren batek ez baldin baditu betetzen gizarteratzeko hitzarmenean hartutako konpromisoak.

3.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea bertan behera uzten baldin bada, ez da laguntzarik ordainduko, eta eskubideak bertan behera utzita jarraituko du egoera horren eragileek bere horretan jarraitzen baldin badute. Egoera hori, ordea, ez da luzatuko jarraian izandako 18 hilabetez baino gehiago. Izan ere, epe hori igarota, laguntza jasotzeko eskubidea amaitu egingo da.

4.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea bertan behera uztea eragin zuten arrazoiak desagertuz gero, une horretan laguntzaren sortzapena hasteko baldintzak betetzen diren aztertuko du administrazioak, bere kabuz edo interesatuak eskatuta. Hala badagokio, laguntza zenbatekoa izango den ere zehaztuko da. Laguntza berriz jasotzen hasteko baldintzak betetzen diren egunaren hurrengotik hasiko da laguntzaren sortzapena.

*25. atala.*– Laguntza kautelaz bertan behera uztea.

Laguntza kautelaz ez ordaintzea erabaki ahal izango du horretarako eskumena duen organoak, laguntza onartzeko edo mantentzeko baldintzetakoren bat ez dela betetzen erakusten duten zantzuak somatu baldin badira elkarbizitzako unitate ekonomiko independientean. Halako kasuetan, laguntza mantendu, bertan behera utzi edo amaitu egingo den erabaki beharko du organo horrek hiru hilabete igaro baino lehen.

*26. atala.*– Eskubidea amaitzea.

1.– Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea amaitu egingo da ondorengo arrazoiengatik:

a) Titularra hil egiten bada.

b) Laguntza emateko eskatzen ziren baldintzetakoren bat ez bada betetzen.

c) Baldintza bertan behera utzita egoten bada jarraian 18 hilabete baino gehiagoan.

d) Titularrak uko egiten badio laguntzari.

e) Zigor-jardunbide baten bidez hala erabakitzen bada.

f) Lege honetako 47.2 atalean aurreikusitako betebeharra ez baldin bada betetzen, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea onartuta zutenen kasuan.

a) Pérdida temporal de alguno de los requisitos exigidos para su reconocimiento.

b) Negativa a negociar o suscribir un convenio de inserción, en los supuestos y términos previstos en el Capítulo II de la presente ley.

2.– Así mismo, el derecho al ingreso mínimo de inserción podrá suspenderse como consecuencia del incumplimiento por parte del titular o de algún miembro de su unidad económica de convivencia independiente de las actuaciones a las que se hubiesen comprometido en el convenio de inserción.

3.– La suspensión del derecho al ingreso mínimo de inserción implicará la suspensión del pago de la prestación y se mantendrá mientras persistan las circunstancias que hubieran dado lugar a la misma, aunque en ningún caso por un periodo continuado superior a 18 meses, transcurrido el cual el derecho a la prestación se extinguirá.

4.– Decaídas las causas que motivaron la suspensión del derecho al ingreso mínimo de inserción, de oficio o a instancia de parte, se procederá a comprobar si en ese momento concurren los requisitos para el devengo de la prestación y, en su caso, a establecer su cuantía. La prestación se devengará a partir del día siguiente al de la fecha en que hubieran decaído las causas que motivaron la suspensión.

*Artículo 25.*– Suspensión cautelar.

El órgano competente podrá proceder a la suspensión cautelar del pago de la prestación cuando se hubieran detectado en la unidad económica de convivencia independiente indicios de una situación que implique la pérdida de alguno de los requisitos exigidos para el reconocimiento o mantenimiento de la prestación, y resolverá acerca del mantenimiento, suspensión o extinción del derecho a la prestación en el plazo de tres meses.

*Artículo 26.*– Extinción del derecho.

1.– El derecho al ingreso mínimo de inserción se extinguirá por las siguientes causas:

a) Fallecimiento del titular.

b) Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para su reconocimiento.

c) Mantenimiento de una situación de suspensión por periodo continuado superior a 18 meses.

d) Renuncia del titular.

e) Resolución en tal sentido de un procedimiento sancionador.

f) Incumplimiento de la obligación prevista en el artículo 47.2 de esta ley, siempre que el derecho al ingreso mínimo de inserción se hubiera reconocido.

2.– Dena delako unerarte gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea zuenari eskubide hori kentzeak elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko beste kide batzuei kalte nabarmenak eragiten badizkie, pertsona horiek laguntza jaso ahal izateko izapideak berehala eta lehentasuna izanda burutuko dira.

*27. atala.*– Titularra ez denari ordaintzea laguntza.

1.– Araudi bidez zehaztuko diren moduan eta kasuetan, eta, kasu guztietan, legez adierazten bada titularrak ez duela gaitasunik edo titularrak ez baldin badu bete hartutako obligazioa (laguntza dagokion helburuak lortzeko erabiltzea), laguntza titularra ez den beste pertsona bati ordaintzea erabaki ahal izango du horretarako eskumena duen organoak.

2.– Laguntza, aurreko lerroaldean aipatzen denez, beste pertsona bati ordaintzeak ez du eragingo, inoiz ere, laguntza jasotzeko eskubidearen titularitatea aldatzea.

V. ATALBURUA
GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

*28. atala.*– Definizioa eta ezaugarriak.

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak laguntza ekonomikoak dira, aldian-aldian emango ez direnak, eta helburua gastu berezi batzuk egiteko behar beste baliabide ez duten pertsona batzuei laguntzea da. Gastu horiek arruntak edo ohiz kanpokoak izango dira, eta beharrezkoak gizarte-bazterkeriarik ez izateko edo bazterkeriaren ondorioak arintzeko.

2.– Era horretako gastutzat ondorengoak hartuko dira:

a) Ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuak; horren barruan sartuko dira:

–Errentaren gastuak.

–Etxebizitza edo alojamendua erosteko, gizarte-larrialdiko egoera baino lehen eskatutako maileguaren interesak ordaindu edo amortizatzeko sortutako gastuak.

–Energiak, urak, estoldak, zaborrek eta hiri-eta landa-ondasun higiezinen gaineko zergak eragindako gastuak.

b) Ohiko etxebizitzan edo alojamenduan bizi ahal izateko eta oinarrizko osagaiak edukitzeko beharrezko gastuak.

c) Elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko pertsona baten edo gehiagoren lehen mailako premiek eragindako gastuak, hala nola janztea, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun-laguntza jasotzea, baldin eta sistema publikoek eskaintzen ez badizkiete zerbitzu horiek.

2.– Se tramitará con carácter de urgencia y prioritariamente el acceso a la prestación en los supuestos en que la extinción del derecho al ingreso mínimo de inserción correspondiente al hasta entonces titular implique perjuicios manifiestos a los demás miembros de la unidad económica de convivencia independiente.

*Artículo 27.*– Pago de la prestación a persona distinta del titular.

1.– En la forma y en los supuestos que se establezcan reglamentariamente, y en cualquier caso en los supuestos de declaración legal de incapacidad del titular y en los que se haya producido el incumplimiento del titular de la obligación de aplicar la prestación a la finalidad para la que se otorgó, el órgano competente podrá acordar el pago de la prestación a persona distinta del titular.

2.– El pago de la prestación previsto en el párrafo anterior no implicará en ningún caso el cambio de la titularidad del derecho a la prestación.

CAPÍTULO V
AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL

*Artículo 28.*– Definición, naturaleza y caracteres.

1.– Las ayudas de emergencia social son prestaciones no periódicas de naturaleza económica y subvencional destinadas a aquellas personas cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de marginación social.

2.– Tendrán tal consideración, en todo caso, los siguientes gastos:

a) Gastos necesarios para el disfrute y mantenimiento de la vivienda o alojamiento habitual, incluyendo:

–Gastos de alquiler.

–Gastos derivados de intereses y de amortización de créditos contraídos con anterioridad a la situación de emergencia social como consecuencia de la adquisición de una vivienda o alojamiento.

–Gastos de energía, agua, alcantarillado, basuras, así como los correspondientes al impuesto sobre bienes inmuebles de naturaleza urbana y rústica.

b) Gastos necesarios para la habitabilidad y el equipamiento básico de la vivienda o alojamiento habitual.

c) Gastos relativos a las necesidades primarias de una o más personas de la unidad económica de convivencia independiente, tales como vestido, educación y formación y atención sanitaria, no cubiertas por los diferentes sistemas públicos.

d) Gorago aipatutako gastu-moduren batengatik lehenagotik zorpetuta egoteagatik sortutako gastuak edo bizitzako oinarrizko beharrizanei erantzuteko beharrezko gastuengatik zorpetuta egoteagatik sortutakoak.

3.– Laguntza horien ezaugarriak:

a) Finalistak izango dira, eta zertarako eman diren, horretarako baino ezin izango dira erabili.

b) Indarrean dagoen legeriaren arabera laguntzaren onuradunak edo honen elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko beste edozein kidek (edo lege honen 29.2 atalean aurreikusitakoaz bat, etxebizitza edo alojamendu berean bizi diren beste pertsona batzuek) jaso ditzakeen era guztietako baliabide eta gizarte-laguntza ekonomikoen osagarria izango da laguntza hau, eta subsidiarioa izango da.

c) Besteri eman ezina izango da, eta ondorioz, ezin izango da:

–obligazioen berme gisa eskaini.

–osorik edo zati bat eman.

–konpentsazio edo beherapenik izan, non eta ez den behar ez bezala eskuratutako laguntzak itzultzeko.

–erretenitu edo enbargatu, Estatu osorako legeriatik ezartzekoak diren legeetan aipatzen diren kasuetan eta lege horietan jartzen diren mugekin izan ezik.

4.– Ohiko etxebizitza edo alojamendua erosi egiten baldin bada, eta hain zuzen ere araudiz ezarritako moduan, laguntza horiek maileguen erakoak izateko aukera egongo da, eta, hala behar badu, laguntza hartzen duenaren eta, etxebizitza edo alojamendu berean elkarrekin bizi direlarik, orobat jaso lezaketenen egoera ekonomiko eta sozialari egokitutako ezaldi bat ezarriko da.

*29. atala.*– Laguntzak lor ditzaketen pertsonak.

1.– Lege honetan jasotzen diren baldintzak beteta, gizarte-larrialdietarako laguntzak lortu ahal izango dituzte ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten herrietakoren bateko Erroldan azaltzea, eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenagotik gutxienez.

b) 18 urte beteta edukitzea.

Salbuespena izango dira adin horretara iristen ez direnak, baldintza hauetan: gainerako baldintza guztiak beteta, ekonomikoki haien kontu dauden pertsonak baldin badituzte ardurapean, edo aitarik edo amarik gabeko umezurtzak badira 18 urtez beherako horiek.

c) Lege honetako 28.2 atalean aipatzen diren gastu bereziei aurre egiteko behar beste baliabide ez izatea;

d) Gastos de endeudamiento previo originados por alguno de los conceptos de gasto señalados con anterioridad o por la realización de gastos necesarios para atender necesidades básicas de la vida.

3.– Estas prestaciones:

a) Tendrán carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto para el que hayan sido concedidas.

b) Tendrán carácter subsidiario y, en su caso, complementario de todo tipo de recursos y prestaciones sociales de contenido económico previstas en la legislación vigente que pudieran corresponder al beneficiario o a cualquiera de los miembros de su unidad económica de convivencia independiente así como, en su caso, de acuerdo con lo previsto en el artículo 29.2 de esta ley, a otras personas residentes en la misma vivienda o alojamiento.

c) Serán intransferibles, y por tanto no podrán:

–ofrecerse en garantía de obligaciones.

–ser objeto de cesión total o parcial.

–ser objeto de compensación o descuento, salvo para el reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas.

–ser objeto de retención o embargo, salvo en los supuestos y con los límites previstos en la legislación general del Estado que resulte de aplicación.

4.– En el caso de gastos derivados de la adquisición de una vivienda o alojamiento habitual en propiedad, y en la forma que se establezca reglamentariamente, estas prestaciones podrán concederse en forma de préstamo, estableciendo, en su caso, un periodo de carencia adaptado a la situación económica y social de quien recibe la prestación y a la de quienes, conviviendo en la misma vivienda o alojamiento, pudieran igualmente recibirla.

*Artículo 29.*– Personas que pueden obtener las prestaciones.

1.– Podrán obtener las ayudas de emergencia social, en las condiciones previstas en la presente ley, aquellas personas que reúnan los siguientes requisitos:

a) Figurar en el Padrón de cualquier municipio integrado en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco como mínimo con seis meses de antelación a la fecha de presentación de la solicitud.

b) Tener cumplidos 18 años.

Quedan exceptuados quienes, no alcanzando dicha edad y reuniendo el resto de los requisitos, tengan económicamente a su cargo a personas dependientes, así como los huérfanos de padre y de madre.

c) No disponer de recursos suficientes con los que afrontar los gastos específicos contemplados en el artí-

gastu horiek elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko kideei eragiten dietenak izan beharko dira. Behar beste baliabide ez dagoela pentsatzeko, ondorengo baldintza guztiak bete beharko dira:

–Azkenengo urtean zehar edo laguntza eskatzeko arrazoia diren gastuen erreferentzia den denbora-tartean, irabaziak legokiokeen gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren gehienezko zenbatekoa (betiere elkarbizitzako unitate ekonomiko independientean zenbat kide diren kontuan izanda) baino %150 txikiagoak izatea, lege honen VI. atalburuan ezartzen denaz bat.

Aurrekoa hala bada ere, araudi bidez zehaztuko diren kasu batzuetan, eskatzailearekin ohiko etxebizitza edo alojamenduan bizi diren beste pertsona batzuen irabaziak ere kontuan hartu ahal izango dira, pertsona horiek ere laguntzen onuradunak izateko aukera baldin badute.

–Lege honen 3.2 atalean eta hori garatuko duten araudietan jasotakoaren arabera elkarbizitzako unitate ekonomiko independientetzat har daitezkeen pertsonen kasuan, pertsona horiek etxebizitza edo alojamendu berean bizi badira beste pertsona batzuekin (3.1.b atalean aipatutako lotura-moduren batekin), pertsona horiek guztiek, kasuan kasuko denbora-tarterako, dituzten irabaziak dagokien gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren gehienezko kopurua bider bost baino txikiagoak izatea; hori guztia inolako baliabiderik ez baldin badute eta aipatutako lotura-moduen arabera elkarrekin zenbat pertsona bizi diren kontuan izanda.

–Lege honen VI. atalburuan ezartzen denaren arabera, dena delako ondarea izatea, baina ondare hori legokiekeen urte osoko gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera bider lau eginda ateratako kopurua baino txikiagoa izatea, betiere inolako baliabiderik ez baldin badute eta aipatutako lotura-moduen arabera elkarrekin zenbat pertsona bizi diren kontuan izanda.

2.– Etxebizitza edo alojamendu berean onuraduna izateko baldintzak betetzen dituen pertsona bat baino gehiago egonez gero, eta pertsona horiek gastu berari aurre egiteko laguntzak eskatu baldin badituzte, kasu horietan gizarte-larrialdietarako laguntza bat baino ez da emango.

*30. atala.–* Onuradunen betebeharrak.

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntza eskuratu duten onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Emateko arrazoia izan diren egoerei aurre egiteko erabiltzea laguntza.

b) Laguntzak jasotzeko eskubidea izatearekin zerikusia duten gertaerak izan badira, horien berri ematea.

c) Onuradunak ohiko bizilekua aldatu egiten badu, horren berri ematea.

culo 28.2 de esta ley que afecten a los miembros de su unidad económica de convivencia independiente. Se considerará que no se dispone de recursos suficiente cuando se cumplan todas las condiciones siguientes:

–Disponer, en el último año o en el periodo de tiempo al que se asocian o vayan a asociarse los gastos para los que se solicitan las prestaciones, de unos rendimientos, determinados conforme se establece en el Capítulo VI de esta ley, inferiores al 150% de la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que le hubiera podido corresponder según el número de miembros de la unidad económica de convivencia independiente.

Sin perjuicio de lo anterior, y en los supuestos que se determinen reglamentariamente, podrán considerarse además los rendimientos de las demás personas que, conviviendo en la misma vivienda o alojamiento que el solicitante, pudieran beneficiarse de las prestaciones.

–En el supuesto de personas que, siendo susceptibles de ser consideradas unidad económica de convivencia independiente en virtud de lo previsto en el artículo 3.2 de esta ley y reglamentos de desarrollo, convivan en la misma vivienda o alojamiento con otras personas con las que mantengan alguno de los vínculos previstos en su artículo 3.1.b), disponer en conjunto todas ellas, para el periodo de tiempo que corresponda, de rendimientos propios cuyo valor sea inferior a cinco veces la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que les pudiera corresponder, en el supuesto de ausencia total de recursos, en función del número total de personas relacionadas entre sí por los mencionados vínculos.

–Disponer de un patrimonio, determinado conforme se establece en el Capítulo VI, cuyo valor sea inferior a cuatro veces la cuantía anual del ingreso mínimo de inserción que les pudiera corresponder, en el supuesto de ausencia total de recursos, en función del número total de personas relacionadas entre sí por los mencionados vínculos.

2.– En el supuesto de que en una misma vivienda o alojamiento existieran varias personas que pudieran ostentar la condición de beneficiario y hubieran solicitado las prestaciones para hacer frente al mismo gasto, sólo podrán otorgarse las ayudas de emergencia social a una de ellas.

*Artículo 30.–* Obligaciones de los beneficiarios.

1.– Son obligaciones de los beneficiarios de las ayudas de emergencia social:

a) Aplicar las prestaciones recibidas a la finalidad para la que se hubieran otorgado.

b) Comunicar los hechos sobrevenidos en relación al cumplimiento de los requisitos que pudieran dar lugar al acceso a las prestaciones.

c) Comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual del beneficiario.

d) Akatsen bat dela eta eskuratutako edo dagokionetik gora eskuratutako kopuruak itzultzea.

e) Araudi bidez zehaztuko den moduan, zorra dagoela onartzen duen agiria izenpetzea.

f) Administraziora joatea eta elkarlanean aritzea, hala eskatzen zaionean.

g) Gizarte-larrialdietarako laguntzaren helburuen ondoriozko betebehar guztiak, araudi bidez zehaztuta baldin badaude.

2.– Onuradunak ez baldin baditu laguntzak dagokien helburuak betetzeko erabiltzen, bere betebeharra hori izanda ere, laguntza hori onuraduna ez den beste pertsona bati ordaintzea erabaki ahal izango du horretarako eskumena duen organoak. Laguntza beste pertsona bati ordaintzeak ez du eragingo, inoiz ere, hasierako titularitatea aldatzea.

*31. atala.–* Zenbatekoa zehaztea.

1.– Lege honetako 28.2 atalean zehaztutako gastu berezi bakoitzerako gehienezko kopuru orokor batzuk finkatuko dira araudi bidez, eta gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez ezin izango da, inoiz ere, kopuru horiek baino gehiago ordaindu.

2.– Lege honetako 28.2 atalean zehaztutako gastu berezi bakoitza dela eta eskabidegile bakoitzari zenbat ordainduko zaion jakiteko, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

a) Aurreikusitako gastu berezi bakoitza dela eta eskabidegile bakoitzari gehienez ere zenbat ordainduko zaion, honen arabera zehaztuko da:

–Eskabidegileak, elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko gainerako kideek eta, halakorik baldin badago, lege honetako 3.2 atalean aurreikusitakoaren arabera, laguntzen onuradunak izan daitezkeen gainerako kideek zenbat baliabide dituzten kontuan izanda.

–Egindako edo egitekoak diren gastu berezien kostua zenbatekoa den.

–Atal honetako 1. lerroaldean aipatzen diren gehienezko kopuruak kontuan izanda.

b) Eman daitekeen gehienezko kopurua murriztu egin ahal izango da ondorengoen arabera:

–Aurrekontuak eskaintzen dituen aukeren arabera.

–Oinarriko gizarte-zerbitzuek egindako balorazioaren arabera (gastua beharrezkoa den edo ez, bazterkeria jasaten duten pertsonei gizarteratzen laguntzeko zenbateko garrantzia duen edo lehentasunezkoa den edo ez kontuan izanda).

*32. atala.–* Laguntza ematea eta ordaintzea.

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntza emateko, aldez aurretik ondorengoa egin beharko da: oinarriko gizarte-zerbitzuek benetan premiazko egoera bat dagoela

d) Reintegrar el importe de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida.

e) En su caso, y en la forma que se establezca reglamentariamente, suscribir un documento de reconocimiento de deuda.

f) Comparecer ante la Administración y colaborar con la misma cuando sea requerido.

g) Todas aquellas que se deriven del objeto y finalidad de las ayudas de emergencia social y que se determinen reglamentariamente.

2.– En el supuesto de incumplimiento del beneficiario de la obligación de aplicar las prestaciones a la finalidad para la que se hubieran otorgado, el órgano competente podrá acordar el pago de las prestaciones a persona distinta del beneficiario. El pago de la prestación no implicará en ningún caso el cambio de la titularidad de la prestación.

*Artículo 31.–* Fijación de la cuantía.

1.– Con carácter general se establecerán reglamentariamente para cada uno de los gastos específicos previstos en el artículo 28.2 de esta ley unas cuantías máximas en concepto de ayudas de emergencia social. En ningún caso podrán sobrepasarse las mencionadas cuantías.

2.– Para la fijación de la cuantía aplicable a cada solicitante por cada uno de los gastos específicos previstos en el artículo 28.2 de esta ley se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

a) La cuantía máxima aplicable a cada solicitante por cada uno de los gastos específicos previstos quedará determinada por:

–Los recursos del solicitante y de los demás miembros de su unidad económica de convivencia independiente así como, en su caso, de las demás personas que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 3.2 de esta ley, pudieran beneficiarse de las prestaciones.

–La cuantía de los gastos específicos realizados o por realizar.

–Las cuantías máximas a las que se refiere el párrafo 1 de este artículo.

b) La cuantía máxima aplicable podrá ser minorada en función de:

–Las disponibilidades presupuestarias existentes.

–La valoración que realicen los servicios sociales de base respecto a la efectiva necesidad del gasto, su importancia para contribuir a la inserción de las personas en situación de exclusión o su carácter prioritario.

*Artículo 32.–* Concesión y pago.

1.– Las ayudas de emergencia social se concederán, en todo caso, previa comprobación de la existencia de una situación real de necesidad por parte de los servi-

ikusi beharko dute, batetik, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako diru-kopuruak jasota egon beharko dira.

2.– Laguntzak emateko argitaratuko den erabakian zehaztutako moduan ordainduko dira gizarte-larrialdietarako laguntzak, eta ordaintzea erabakia hartu duen organoaren eginkizuna izango da.

3.– Oinarriko gizarte-zerbitzuek erabakitzen dutenaren arabera, laguntzak dena batera edo zatituta ordainduko dira. Laguntza emango duen erabakian, eskumena duen organoak zehaztu egin beharko du zein izango den ordaintzeko modu zehatza, eta, era berean, egindako gastuen fakturak edo egiaztagiriak aurkezteko epea ere finkatu beharko du. Epe horren barruan ez badira aurkezten aipatutako fakturak edo egiaztagiriak, emandako laguntzak itzultzeko jardunbideari ekingo zaio, beharrezkoa bada.

## VI. ATALBURUA
## ZENBATEKO BALIABIDEAK DAUDEN ZEHAZTEA

*33. atala.–* Baliabideak orokorrean kontuan hartzea.

Lege honetan aipatzen diren laguntzak ematea dela eta, eskabidegileak, elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko gainerako kideek eta laguntzen onurak jaso ditzaketenek (halakorik baldin badago, 3.2 atalean erabakitakoaz bat) zenbat baliabide dituzten jakiteko, horiek guztiek dituzten baliabideak hartuko dira kontuan.

*34. atala.–* Irabaziak zehaztea.

1.– Irabaziak zenbatekoak diren zehazteko, norbere edo besteren kontura egindako lanak emandakoak eta ondasunek, pentsioek edo beste edozein tituluk emandakoak hartuko dira kontuan.

2.– Irabaziak zehazteko orduan, gerta liteke irabazi batzuk ez zenbatzea: hain zuzen ere finalistak diren gizarte-laguntza eta diru-sarrera batzuk eta norbere edo besteren kontura egindako lanagatik lortutako irabazien ehuneko jakin batzuk; azken horiek eskabidegileak, elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko gainerako kideek edo 3.2 atalean aipatzen diren pertsonek egindako lanari buruzkoak izango dira.

3.– Zer irabazi den jakiteko orduan hilabetea hartzen baldin bada erreferentzia moduan, eskabidea egin den uneko hilabetea hartuko da kontuan. Erreferentzia hilabetea baino handiagoa edo urte osokoa bada, justu eskabidea egin aurreko hilabeteak izango dira erreferentzia.

*35. atala.–* Ondarea zehaztea.

1.– Elkarbizitzako unitate ekonomiko independientearen ondarea ondasun higigarri eta higiezin hauek osatuko dute: unitateak jabetza, edukitza edo usufruktuaren titulu juridikoz dituen guztiak.

cios sociales de base y de la existencia de crédito consignado para esa finalidad en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco

2.– Las ayudas de emergencia social se harán efectivas en los términos previstos en la correspondiente resolución de concesión, correspondiendo el pago de las mismas al órgano que la hubiera dictado.

3.– De acuerdo con lo que determinen los servicios sociales de base, el pago de las prestaciones podrá realizarse de forma fraccionada o de una sola vez. En la correspondiente resolución de concesión el órgano competente concretará la forma específica de pago y establecerá un plazo para la presentación de las facturas o justificantes correspondientes a los gastos realizados. En el supuesto de que dichas facturas o justificantes no se presentaran en el mencionado plazo se iniciaría, en su caso, el correspondiente procedimiento de reintegro de las prestaciones.

## CAPÍTULO VI
## DETERMINACIÓN DEL NIVEL DE RECURSOS

*Artículo 33.–* Consideración global de recursos.

A efectos de las prestaciones contempladas en esta ley, para la determinación de los recursos del solicitante y de los demás miembros de su unidad económica de convivencia independiente así como, en su caso, de los correspondientes a las demás personas que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 3.2, pudieran beneficiarse de las prestaciones, se computará el conjunto de recursos de los mismos.

*Artículo 34.–* Determinación de los rendimientos.

1.– El cómputo de los rendimientos incluirá los procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena, del patrimonio, de pensiones o de cualquier otro título.

2.– Podrán quedar excluidos del cómputo de rendimientos determinados ingresos y prestaciones sociales de carácter finalista, así como determinados porcentajes de ingresos procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena correspondiente al solicitante, a los demás miembros de su unidad económica de convivencia independiente o, en su caso, a las demás personas previstas en el artículo 3.2.

3.– Cuando la determinación de los rendimientos sea mensual, se referirá al mes de la solicitud. Cuando sea superior a un mes o anual, se referirá a los meses inmediatamente anteriores a la solicitud.

*Artículo 35.–* Determinación del patrimonio.

1.– El patrimonio de la unidad económica de convivencia independiente incluirá el conjunto de bienes muebles e inmuebles sobre los que se ostente un título jurídico de propiedad, posesión o usufructo.

2.– Elkarbizitzako unitate ekonomiko independientearen ondarearen balorazioa egiterakoan, ez da kontuan hartuko unitate horren ohiko bizilekua edo alojamendua den etxebizitza, non eta ez den jabetzan duen aparteko balioko etxebizitza eta erraz dirutzekoa.

Lege hau garatuko duten arauetan zehaztu egin beharko dira aurreko lerroaldean aipatzen diren baldintzak. Dena den, ondasuna aparteko baliokoa den edo ez erabakitzerakoan, kontuan eduki beharko da etxebizitza hori dagoen herrian etxeek katastroan duten balioaren batez bestekoa zein den.

3.– Era berean, balorazioa egiterakoan ez da kontuan hartuko familiaren tresneria (altzari, jantzi, etxeko tresna...), horretan aparteko balioa duten eta erraz dirutzekoak diren ondasunak ez badaude behintzat.

## VII. ATALBURUA
## LAGUNTZEN ERREGIMEN EKONOMIKOA

*36. atala.*– Behar ez bezala eskuratutako laguntzak.

1.– Arau honetan aipatzen den edozein laguntza-modu eman duten administrazioek behar ez bezala emandakoak berriz jaso beharko dituzte.

2.– Behar ez bezala eman eta gero berriz eskuratzen dituzten kopuruak, halakorik baldin badago, hasieran zuten helburu bera betetzeko erabiliko dira, horretarako jarriko den jardunbideari jarraituta.

*37. atala.*– Preskripzioa eta iraungitzea.

1.– Behar ez bezala eskuratutako kopuruak berriz itzultzeko betebeharra amaitu egingo da Euskadiko Ogasun Orokorraren eskubide eta betebeharrei ezartzekoa zaien araudian aurreikusitakoaz bat.

2.– Laguntzak oroharreko prezioan eta dena batera jasotzeko eskubidea urtebetera amaitu egingo da, eta epe hori interesatuari laguntza eman zaiola formalki jakinarazi eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen.

3.– Aldian-aldian jasotzeko laguntzak direnean, hileroko laguntza jasotzeko eskubidea laguntza bakoitzaren mugaeguna igarotzen denetik urtebetera amaituko da.

*38. atala.*– Diru-laguntzen urteko zenbatekoa.

1.– Aurrera doan urtean gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren titularrak izan direnek gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera eta gizarte-larrialdietarako laguntza dela eta urte osoan zehar jaso ahal izango duten zenbatekoa ezin izango da, inoiz ere, titularraren ezaugarriak dituen elkarbizitzako unitate ekonomiko independiente batek gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera dela eta gehienez jaso ahal izango lukeenaren %175 baino handiagoa izan.

2.– Queda exceptuada de la valoración del patrimonio de la unidad económica de convivencia independiente la vivienda o alojamiento que constituya su residencia habitual, salvo en el caso de una vivienda en propiedad de valor excepcional y de fácil realización.

Las normas de desarrollo de esta ley concretarán los requisitos previstos en el párrafo anterior. En todo caso dichas normas, a efectos de determinar si el bien es de extraordinario valor, deberán tener en cuenta el valor catastral medio de las viviendas del municipio en que radique.

3.– Asimismo, queda exceptuado de la valoración el ajuar familiar, salvo que en el mismo existan bienes de valor excepcional y de fácil realización.

## CAPÍTULO VII
## RÉGIMEN ECONÓMICO DE LAS PRESTACIONES

*Artículo 36.*– Prestaciones indebidamente percibidas.

1.– Las Administraciones que hayan concedido cualquiera de las prestaciones previstas en esta norma deberán proceder al cobro de las indebidamente percibidas.

2.– Las cuantías que, en su caso, obtengan por la devolución de prestaciones indebidas deberán destinarse a la misma finalidad a la que fueron inicialmente aplicadas conforme al procedimiento que se establezca.

*Artículo 37.*– Prescripción y caducidad.

1.– La obligación de reintegrar las cantidades indebidamente percibidas prescribirá de conformidad con lo previsto en la normativa aplicable a los derechos y obligaciones de la Hacienda General del País Vasco.

2.– El derecho al percibo de las prestaciones a tanto alzado y por una sola vez caducará al año, a contar desde el día siguiente al de haber sido notificada en forma al interesado su concesión.

3.– Cuando se trate de prestaciones periódicas, el derecho al percibo de cada mensualidad caducará al año de su respectivo vencimiento.

*Artículo 38.*– Importe anual de las ayudas económicas.

1.– En el caso de personas que hubieran sido titulares del ingreso mínimo de inserción en el año en curso, el importe anual de las ayudas económicas que podrán obtener en concepto de ingreso mínimo de inserción y de ayudas de emergencia social no podrá en ningún supuesto exceder del 175% de la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que pudiera haber correspondido con carácter anual a una unidad económica de convivencia independiente de las características de la del titular.

2.– Gizarte-larrialdietarako laguntzaren onuradunentzat gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren titularrak izan ez badira, aurreko lerroaldean aipatzen den ehunekoa %125ekoa izango da.

VIII. ATALBURUA
ESKUMENAK ETA FINANTZIAZIOA

*39. atala.–* Printzipio orokorra.

Lege hau eta berau garatuko duten xedapenak aurrera eraman eta ezartzeko eskumena dutenak, ondorengo ataletan esango denaz bat, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak izango dira.

*40. atala.–* Eusko Jaurlaritzaren eskumenak.

1.– Eusko Jaurlaritzak, dena delako esparruan eskumena duten sailen bidez, eginkizun hauek izango ditu:

a) Lege hau garatuko duten arauak idatzi eta onartzea.

b) Gizarteratzeko Sail Arteko Batzordea eta Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra abian jartzea, horiek egingo dituzten lanei bultzada ematea eta, era berean, Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordea osatzea bultzatzea.

c) Gizarteratzeko Euskal Plana idaztea eta plan hori Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, komunikazio moduan.

d) Gizarteratzeko Euskal Plana aurrera eraman ahal izateko behar beste baliabide orokor prestatzea. Horretarako, sailetan programak prestatu beharko dira eta gero horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren lege-aurregitasmoan sartu, urtero.

e) Legean aurreikusten diren gizarte arloko laguntza ekonomikoei eta gainerako tresnei buruzko estatistikak planifikatu, koordinatu eta diseinatzea eta baita estatistika horiek egin eta mantentzea ere, estatistikei buruzko arauek diotena beteta.

f) Ordenamendu juridikoak bere ardurapean jarritako gainerako eginkizun guztiak.

2.– Eusko Jaurlaritzak, gizarte-zerbitzuen esparruan eskumena duen sailaren bidez, hiru urtean behin memoria bat idatziko du, ondorengoetan oinarrituta: Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrak prestatutako txostenean (11.4 c atalean dago aurreikusita), Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordeak prestatutakoan (13 d atalean dago jasota) eta Sail Arteko Batzordeak prestatutakoan (14.3 f atalean dago aurreikusita). Memoria hori gero Eusko Legebiltzarrera bidaliko du Gizarteratzeko Euskal Plana ezarriko den azkenengo hiruhilabetekoan.

*41. atala.–* Foru-aldundien eskumenak.

2.– Para los beneficiarios de las ayudas de emergencia social que no hubieran sido titulares del ingreso mínimo de inserción en el año en curso, el porcentaje señalado en el párrafo anterior será del 125%.

CAPÍTULO VIII
COMPETENCIAS Y FINANCIACIÓN

*Artículo 39.–* Principio general.

Para el desarrollo y aplicación de esta ley y de sus disposiciones de desarrollo serán competentes, de conformidad con lo dispuesto en los artículos siguientes, el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos.

*Artículo 40.–* Competencias del Gobierno Vasco.

1.– Corresponde al Gobierno Vasco, a través de los Departamentos competentes en la materia, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Elaboración y aprobación de las normas de desarrollo de la presente ley.

b) Puesta en marcha de la Comisión Interdepartamental para la Inserción y de la Comisión Permanente para la Inserción e impulso al desarrollo de sus trabajos, así como promover la constitución de la Comisión Interinstitucional para la Inserción.

c) Aprobación del Plan Vasco de Inserción y elevación del mismo al Parlamento Vasco como comunicación.

d) Instrumentación con carácter general de los recursos y medios suficientes para la ejecución del Plan Vasco de Inserción, mediante los programas departamentales a incluir anualmente en el anteproyecto de ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

e) Planificación, coordinación y diseño de las estadísticas relativas a las prestaciones económicas y demás instrumentos de carácter social previstos en la ley, así como elaboración y mantenimiento de las mismas, de acuerdo con la normativa estadística.

f) Las demás funciones que pudieran serle encomendadas por el ordenamiento jurídico.

2.– El Gobierno Vasco, a través del Departamento competente en materia de servicios sociales, elaborará trienalmente una memoria en base a los informes elaborados por la Comisión Permanente para la Inserción, previsto en el artículo 11.4 c), la Comisión Interinstitucional para la Inserción, previsto en el artículo 13 d), y por la Comisión Interdepartamental, previsto en el artículo 14.3 f), para su elevación al Parlamento Vasco en el último trimestre de aplicación del Plan Vasco de Inserción.

*Artículo 41.–* Competencias de las Diputaciones Forales.

Foru-aldundiek eginkizun hauek izango dituzte:

a) Gizarteratzeko Euskal Plana betetzea dela eta onartutako gizarteratzeko foru-programak idatzi eta garatzea.

b) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera ematea onartu edo ukatzea eta, beharrezkoa den kasuetan, laguntza horiek berrikusi, aldatu, bertan behera utzi eta ematen amaitzea.

c) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera ordaintzea hilero.

d) Ordenamendu juridikoak beren ardurapean jarritako gainerako eginkizun guztiak.

e) Bere eskumen-esparruaren barruan zigortzeko ahalmenaz baliatzea, lege honen X. atalburuan eta hori garatuko duten arauetan jasoko denaz bat.

*42. atala.–* Udalen eskumenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eginkizun hauek izango dituzte:

a) Hala egokitzen bada, Gizarteratzeko Euskal Plana betetzea dela eta onartutako gizarteratzeko udal-programak idatzi eta garatzea.

b) Bazterkeria jasaten duten pertsonak nortzuk diren jakin eta zein premia duten aztertzea.

c) Gizarteratzea lortzeko oinarriko gizarte-zerbitzuek aurrera eramango dituzten esku-hartze eta jarduerak idatzi, sustatu eta garatzea.

d) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera lortzeko eskabideak jaso eta espedienteak bideratzea, erabakiaren proposamena ere egiten dela.

e) Gizarteratzeko hitzarmenak negoziatu, idatzi eta izenpetzea. Eginkizun hori oinarriko gizarte-zerbitzuena izango da.

f) Gizarte-larrialdietarako laguntzak ematea onartu eta ukatzea.

g) Gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzea.

h) Lege honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoen eta kasuan kasuko gizarteratzeko hitzarmenen titular eta onuradunen etengabeko jarraipena egitea. Beharrezkoa bada, gizarteratzeko hitzarmenak aldi batez bertan behera uztea, berrikustea eta aldatzea, lege honetako 8. atalean aurreikusitakoaz bat.

i) Ordenamendu juridikoak beren ardurapean jarritako gainerako eginkizun guztiak.

j) Bere eskumen-esparruaren barruan zigortzeko ahalmenaz baliatzea, lege honen X. atalburuan eta hori garatuko duten arauetan jasoko denaz bat.

Corresponde a la Diputación Foral de cada territorio histórico:

a) Elaboración y desarrollo de los programas forales de inserción aprobados en ejecución del Plan Vasco de Inserción.

b) Reconocimiento, denegación y, en su caso, revisión, modificación, suspensión y extinción del ingreso mínimo de inserción.

c) Realización del pago mensual del ingreso mínimo de inserción.

d) Las demás funciones que pudieran serle encomendadas por el ordenamiento jurídico.

e) Ejercicio de la potestad sancionadora en el ámbito de su competencia, en los términos recogidos en el Capítulo X de la presente ley y demás normas que la desarrollen.

*Artículo 42.–* Competencias de los Ayuntamientos.

Corresponde a los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco la realización de las siguientes funciones:

a) En su caso, elaboración y desarrollo de los programas municipales de inserción aprobados en ejecución del Plan Vasco de Inserción.

b) Detección de las personas en situación de exclusión y diagnóstico de sus necesidades.

c) Promoción, elaboración y desarrollo de intervenciones y actuaciones para la inserción por los servicios sociales de base.

d) Recepción de las solicitudes e instrucción de los expedientes relativos al ingreso mínimo de inserción, incluida la propuesta de resolución.

e) Negociación y elaboración de los convenios de inserción por los servicios sociales de base y suscripción de los mismos.

f) Reconocimiento y denegación de las ayudas de emergencia social.

g) Realización del pago de las ayudas de emergencia social.

h) Seguimiento continuado de los titulares y beneficiarios de las prestaciones económicas previstas en esta ley y de los correspondientes convenios de inserción. En su caso, suspensión temporal, revisión y modificación de los convenios de inserción conforme a lo previsto en el artículo 8 de la presente ley.

i) Las demás funciones que pudieran serles encomendadas por el ordenamiento jurídico.

j) Ejercicio de la potestad sancionadora en el ámbito de su competencia, en los términos recogidos en el Capítulo X de la presente ley y demás normas que la desarrollen.

*43. atala.*– Finantziazioa.

1.– Gizarte-laguntzaren arloan zuzeneko ekintzak aurrera eramateko dagoen eskumenagatik, urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan lege honetan jasotzen diren laguntza ekonomikoak finantziatzeko beste diru jasota utziko da.

2.– Foru-aldundiek eta udalek beren aurrekontuetan urtero lege honetan jasotzen diren eskumenak betetzeko beste baliabide ekonomiko jasota utziko dute.

*44. atala.*– Foru-aldundien eskumenak eskuordetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako foru-aldundiek udalen esku utzi ahal izango dituzte haiei zegozkien eginkizun batzuk, hain zuzen ere gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera ematea onartu, ukatu edo laguntza hori aldatu, bertan behera utzi, amaitu eta ordaintzearekin zerikusia duten eginkizunak.

IX. ATALBURUA
JARDUTEKO ARAU KOMUNAK

*45. atala.*– Eskabideak.

1.– Lege honetan aipatzen diren gizarte arloko laguntzak (laguntza ekonomikoak edo bestelakoak) onartzeko, aldez aurretik eskabidea aurkeztu beharko du interesatuak bizi den udaleko udaletxean.

Oinarriko gizarte-zerbitzuek lege honetan aipatzen diren gizarte arloko tresnak eta laguntza ekonomikoak tramitatzeko beharko duten informazio eta orientazio guztia eskainiko diete eskabidegileei.

2.– Eskabidearekin batera lege honetan eta legea garatuko duten arauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla erakusten duten agiriak ere aurkeztu behar dira.

*46. atala.*– Instrukzioa.

1.– Espedientea bideratzea eskabidegilea bizi den udalaren eginkizuna izango da.

2.– Kasu guztietan, udalak aurkeztu diren eskabide guztien edukia aztertuko du, eta beharrezkoak diren datuak eta txostenak eskatuko dizkie beste erakunde publiko edo pribatu batzuei edo eskaria egin duen pertsonari berari. Dena den, eskumena duten beste euskal administrazio publiko batzuek kontrolatu eta berrikusteko beste jarduera batzuk ere burutu ahal izango dituzte, aurrerago.

3.– Aurreko lerroaldean aipatzen diren datuak eta txostenak eskabidegileak lege honetan eskatzen diren

*Artículo 43.*– Financiación.

1.– En razón de la competencia de acción directa en materia de asistencia social, se consignarán anualmente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco los recursos económicos necesarios para la financiación de las cuantías de las prestaciones económicas reguladas en la presente ley.

2.– Las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos consignarán anualmente en sus respectivos presupuestos los recursos económicos necesarios para la ejecución de las competencias previstas en la presente ley.

*Artículo 44.*– Delegación de competencias de las Diputaciones Forales.

Las Diputaciones Forales de los territorios históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán delegar en los Ayuntamientos funciones que les fueran propias en relación al reconocimiento, denegación, revisión, modificación, suspensión, extinción y pago del ingreso mínimo de inserción.

CAPÍTULO IX
NORMAS COMUNES DE PROCEDIMIENTO

*Artículo 45.*– Solicitudes.

1.– El reconocimiento de los instrumentos de carácter social y de las prestaciones económicas previstas en la presente ley se realizará previa solicitud del interesado dirigida al Ayuntamiento del municipio en el que tenga su residencia.

Los servicios sociales de base facilitarán a las personas solicitantes cuanta información y orientación sea necesaria para la tramitación de los instrumentos de carácter social y prestaciones económicas previstas en la presente ley.

2.– La solicitud deberá ir acompañada de los documentos necesarios para justificar el cumplimiento de los requisitos que, en cada caso, se hubieran establecido en la presente ley y en las normas de desarrollo de la misma.

*Artículo 46.*– Instrucción.

1.– La instrucción del expediente se realizará por el Ayuntamiento del municipio en el que tenga su residencia el solicitante.

2.– En todo caso, el Ayuntamiento comprobará el contenido de las solicitudes presentadas, pudiendo a estos efectos pedir cuantos datos e informes sean necesarios a otras instituciones o entidades públicas y privadas o al propio solicitante, sin perjuicio de las demás actuaciones de control y revisión que al respecto pudieran desarrollar con posterioridad otras Administraciones públicas vascas competentes.

3.– Los datos e informes a los que alude el párrafo anterior deberán limitarse a aquellos que resulten im-

baldintzak betetzen dituen edo ez ikusteko ezinbestekoak direnak baino ez dira izango.

*47. atala.–* Baliabide eta laguntza ekonomikoak aztertzea.

1.– Eskabidegileak edo elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko kideek baliabide eta laguntzaren bat eskuratzeko eskubidea baldin badute, laguntza edo baliabide horiek oso-osorik erabili diren aztertuko du udalak.

2.– Eskabidegileak edo elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko kideek laguntza ekonomikoren bat jasotzeko eskubidea eskuratu eta eskubide horretaz ez baldin badira baliatu (baita jakiak eskuratzeko eskubidea ere, ezkontzazko elkarbizitza amaitu den kasuetan), udalak jakinaraziko dio eskabidegileari, espedientea izapidetzen amaitu baino lehen, eskubideaz baliatu behar duela, indarrean dagoen legeriak dioenaz bat. Obligazio bera egongo da gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren titularrak direnekiko, eskubide horiek laguntzaren ondoren sortzen baldin badira.

3.– Eskabidegileak ez baldin badu betetzen aurreko lerroaldean aipatzen den obligazioa, udalak, besterik gabe, espedientea artxibatzeko aukera izango du.

4.– Araudi bidez zehaztuta egongo diren ohiz kanpoko egoeretan, 2. lerroaldean aipatzen den betebeharra ez betetzeko aukera izango du eskabidegileak.

*48. atala.–* Erabakitzeko epea eta administrazioaren isilbidea.

1.– Laguntza ekonomikoen kasuan, erabakia hartzeko eskumena duen organoak laguntza ematen edo ukatzen dela dioen erabakia eskabidea aurkeztu zen egunetik gehienez ere bi hilabete igaro aurretik eman beharko du.

Epe hori igaro eta berariazko erabakirik ez baldin bada hartu, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren kasua bada, laguntza eman dela adieraziko du horrek. Gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan, berriz, laguntzarik ez dela eman adieraziko du.

2.– Gizarte arloko tresnen kasuan, eskumena duen organoak gehienez ere bi hilabeteko epea izango du, tresna horietaz baliatzeko asmoz aurkeztutako eskabideak jasotzen direnetik, laguntza ukatzen duen erabakia hartzeko edo eskabidegilearekin kasuan kasuko gizarteratzeko hitzarmena izenpetzeko.

Epe hori igaro eta gizarteratzeko hitzarmenik izenpetu ez bada, hitzarmena izenpetzeko eskabideari administrazioak uko egin diola pentsatu beharko da.

3.– Aurreko zenbakietan aipatzen diren epeak eten egingo dira, eskabidea aurkeztu duenari egoztekoa den arrazoiren batengatik geratu bada jardunbidea.

prescindibles para la comprobación del cumplimiento por parte del solicitante de los requisitos establecidos en la presente ley.

*Artículo 47.–* Comprobación de los recursos y prestaciones de contenido económico.

1.– El Ayuntamiento comprobará que los recursos y prestaciones sociales de contenido económico a los que pudieran tener derecho el solicitante o los miembros de su unidad económica de convivencia independiente se hubieran hecho valer íntegramente.

2.– En el caso de que el solicitante o los miembros de su unidad económica de convivencia independiente fueran acreedores de derechos de carácter económico que no se hubiesen hecho valer, inclusive el derecho de alimentos en aquellos casos en los que se constate el cese efectivo de la convivencia conyugal, el Ayuntamiento instará al solicitante para que, con carácter previo a la finalización de la instrucción del expediente, se hagan valer sus derechos de conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente. La misma obligación recaerá sobre los titulares del ingreso mínimo de inserción cuando tales derechos nazcan con posterioridad a la prestación.

3.– En caso de incumplimiento de la obligación señalada en el párrafo anterior por parte del solicitante, el Ayuntamiento podrá proceder sin más trámite al archivo del expediente.

4.– En aquellas circunstancias extraordinarias que se establezcan reglamentariamente podrá eximirse al solicitante de la obligación prevista en el párrafo 2.

*Artículo 48.–* Plazo para resolver y silencio administrativo.

1.– En el caso de las prestaciones económicas, el órgano competente para resolver dictará la resolución de concesión o de denegación en un plazo máximo de dos meses a partir de la fecha de presentación de la solicitud correspondiente.

Transcurrido dicho plazo sin que hubiera recaído resolución expresa, en el caso del ingreso mínimo de inserción la prestación correspondiente se entenderá concedida. En el caso de las ayudas de emergencia social, las prestaciones correspondientes se entenderán denegadas.

2.– En el caso de los instrumentos de carácter social, el órgano competente para resolver, en un plazo máximo de dos meses a partir de la fecha de presentación de la solicitud de aquellos instrumentos, dictará resolución denegatoria o suscribirá el correspondiente convenio de inserción.

Transcurrido dicho plazo sin que se hubiera suscrito el citado convenio de inserción, se entenderá denegada la solicitud de convenio.

3.– Los plazos citados en los números anteriores quedarán interrumpidos cuando el procedimiento se paralice por causa imputable al solicitante.

*49. atala.–* Isilpekotasuna.

Eskumena duten organoek espedienteak izapidetzerakoan lortutako datuak isilpean gordeko dituztela bermatuko dute euskal administrazio publikoek.

*50. atala.–* Laguntzak eskatzen dituztenen eskubideak.

Laguntzak ukatzen dituzten erabakien aurka kasuan kasuko errekurtso administratibo eta jurisdikzionalak jarri ahal izango dira.

Errekurtso horiek jartzeaz gainera, interesatuek kexa arrazoitua bidali ahal izango diote gizarte-eskubideen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

X. ATALBURUA
ARAUHAUSTEAK ETA ZIGORRAK

*51. atala.–* Erantzukizuna duten pertsonak.

Lege honetan arauhaustetzat hartutako ekintzetan (zerbait egin edo ez egiteagatik) parte hartzen dutenak izango dira erantzukizuna duten pertsonak.

*52. atala.–* Arauhauste arinak.

Hauek dira arauhauste arinak:

a) Laguntzaren titularrak edo onuradunak, ohiko bizilekua aldaturik, aldaketa horren berri ez ematea, horretarako obligazioa izanda, baldin eta aldaketa horren ondorioz ez bada sortzen lege honetan aurreikusitako laguntzetakoren bat jasotzeko eskubidea edo behar ez bezala laguntza mantentzen jarraitzeko eskubidea.

b) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortu edo mantentzeko egindako iruzurrak, lortu nahi zen helburua (laguntza eskuratu edo luzatzea) erdietsi ez bada.

c) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortu edo mantentzeko egindako iruzurrak, ondorengo kasuan: iruzur horien bidez laguntzaren bat behar ez bezala eskuratu baldin bada, baina ustezko arauhauslearen unitate ekonomikoaren ezaugarriak dituen elkarbizitzako beste unitate ekonomiko independiente bati gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera dela eta urte osorako egokituko litzaiokeen gehienezko kopuruaren %50 edo gutxiago eskuratu baldin bada.

*53. atala.–* Arauhauste larriak.

Hauek dira arauhauste larriak:

a) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortu edo mantentzeko egindako iruzurrak, ondorengo kasuan: iruzur horien bidez laguntzaren bat behar ez bezala eskuratu baldin bada, baina ustezko arauhauslearen unitate ekonomikoaren ezaugarriak dituen elkarbizitzako beste unitate ekonomiko independiente bati gizarteratzeko gutxie-

*Artículo 49.–* Confidencialidad.

Las Administraciones públicas vascas garantizarán la confidencialidad de los datos obtenidos en la tramitación de los expedientes por parte de los organismos competentes.

*Artículo 50.–* Derechos de quienes piden las ayudas.

Contra las resoluciones denegatorias podrán interponerse los recursos administrativos y jurisdiccionales que correspondan.

Sin perjuicio de la interposición de dichos recursos, los interesados podrán elevar queja razonada al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de derechos sociales.

CAPÍTULO X
INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 51.–* Sujetos responsables.

Son sujetos responsables los que incurran en las acciones u omisiones tipificadas como infracciones en la presente ley.

*Artículo 52.–* Infracciones leves.

Son infracciones leves:

a) Incumplimiento de la obligación de comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual del titular o beneficiario, cuando de dicho cambio no se derivara percepción o conservación indebida de alguna de las prestaciones previstas en la presente ley.

b) Las actuaciones fraudulentas dirigidas a obtener o a conservar el ingreso mínimo de inserción o las ayudas de emergencia social cuando de dichas actuaciones no se hubiera derivado la obtención o la conservación pretendida.

c) Las actuaciones fraudulentas dirigidas a obtener o a conservar el ingreso mínimo de inserción o las ayudas de emergencia social cuando de dichas actuaciones se hubiera derivado una percepción indebida de alguna de las prestaciones en cuantía inferior o igual al 50% de la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que pudiera corresponder con carácter anual a una unidad económica de convivencia independiente de las características de la del presunto infractor.

*Artículo 53.–* Infracciones graves.

Son infracciones graves:

a) Las actuaciones fraudulentas dirigidas a obtener o a conservar el ingreso mínimo de inserción o las ayudas de emergencia social cuando de dichas actuaciones se hubiera derivado una percepción indebida de alguna de las prestaciones en cuantía superior al 50% e inferior o igual al 100% de la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que pudiera corresponder con

neko diru-sarrera dela eta urte osorako egokituko litzaiokeen gehienezko kopuruaren %50 baino gehiago eta %100 baino gutxiago edo %100 eskuratu baldin badu.

b) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortu edo mantentzeko egindako iruzurrak, ondorengo kasuan: lortu nahi zen helburua erdietsi den edo ez alde batera utzita, arauhaustearen unean ustezko arauhauslearen elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteak ezaugarri berak dituen elkarbizitzako beste unitate ekonomiko independiente bati gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera dela eta hilabeterako egokituko litzaiokeen gehienezko kopuruaren %200 baino gehiagoko eta %250 baino gutxiagoko edo %250eko baliabideak baldin badituhilabetean.

*54. atala.–* Arauhauste oso larriak.

Hauek dira arauhauste oso larriak:

a) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortu edo mantentzeko egindako iruzurrak, ondorengo kasuan: iruzur horien bidez laguntzaren bat behar ez bezala eskuratu baldin bada, baina ustezko arauhauslearen elkarbizitzako unitatearen ezaugarriak dituen elkarbizitzako beste unitate ekonomiko independiente bati gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera dela eta urte osorako egokituko litzaiokeen gehienezko kopuruaren %100 baino gehiago eskuratu baldin bada.

b) Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortu edo mantentzeko egindako iruzurrak, ondorengo kasuan: lortu nahi zen helburua erdietsi den edo ez alde batera utzita, arauhaustearen unean ustezko arauhauslearen elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteak ezaugarri berak dituen elkarbizitzako beste unitate ekonomiko independiente bati gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera dela eta hilabeterako egokituko litzaiokeen gehienezko kopuruaren %250 baino gehiagoko baliabideak baldin baditu hilabetean.

*55. atala.–* Arauhauste bat baino gehiago egotea.

Lege honetako 53.b) eta 54.b) ataletan aipatzen diren iruzurrezko jarduerengatik, esandakoez gainera, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera edo gizarte-larrialdietarako laguntza behar ez bezala eskuratu baldin bada -52 c), 53 a) eta 54 a) ataletan agertzen den eran-, hau da, arauhauste bat baino gehiago egin bada batera, burututako arauhauste larrienari dagokion zigorra baino ez da jarriko.

*56. atala.–* Zigorrak.

1.– Arauhauste arinen bat eginez gero, zigorra ohartarazpena izango da.

2.– Arauhauste larriak eginez gero, isunak jarriko dira. Gutxieneko mailan, 20.000 PTAtik 30.000 PTA-

carácter anual a una unidad económica de convivencia independiente de las características de la del presunto infractor.

b) Las actuaciones fraudulentas dirigidas a obtener o a conservar el ingreso mínimo de inserción o las ayudas de emergencia social cuando, obtenido o no el resultado pretendido, en el momento de la comisión de esas actuaciones la unidad económica de convivencia independiente del presunto infractor dispusiera de unos recursos mensuales superiores al 200% e inferiores o iguales al 250% de la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que pudiera corresponder con carácter mensual a una unidad económica de convivencia independiente de las características de la del presunto infractor.

*Artículo 54.–* Infracciones muy graves.

Son infracciones muy graves:

a) Las actuaciones fraudulentas dirigidas a obtener o a conservar el ingreso mínimo de inserción o las ayudas de emergencia social cuando de dichas actuaciones se hubiera derivado una percepción indebida de alguna de las prestaciones en cuantía superior al 100% de la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que pudiera corresponder con carácter anual a una unidad económica de convivencia independiente de las características de la del presunto infractor.

b) Las actuaciones fraudulentas dirigidas a obtener o a conservar el ingreso mínimo de inserción o las ayudas de emergencia social cuando, obtenido o no el resultado pretendido, en el momento de la comisión de esas actuaciones la unidad económica de convivencia independiente del presunto infractor dispusiera de unos recursos mensuales superiores al 250% de la cuantía máxima del ingreso mínimo de inserción que pudiera corresponder con carácter mensual a una unidad económica de convivencia independiente de las características de la del presunto infractor.

*Artículo 55.–* Concurso de más de una infracción.

Cuando las actuaciones fraudulentas a las que se refieren los artículos 53.b) y 54.b) de esta ley hubieran dado lugar además a una percepción indebida del ingreso mínimo de inserción o de las ayudas de emergencia social tipificada en los artículos 52 c), 53 a) y 54 a), concurriendo en consecuencia más de una infracción, se procederá a sancionar solamente la más grave de las infracciones cometidas.

*Artículo 56.–* Sanciones.

1.– Las infracciones leves se sancionarán con el apercibimiento al sujeto infractor.

2.– Las infracciones graves se sancionarán con multa, en su grado mínimo, de 20.000 a 30.000 PTA; en

rainokoak; tarteko mailan, 30.001 PTAtik 40.000 PTArainokoak; eta, gorengo mailan, 40.001 PTAtik 50.000 PTArainokoak.

3.– Arauhauste oso larriak eginez gero, isunak jarriko dira. Gutxieneko mailan, 50.001 PTAtik 200.000 PTArainokoak; tarteko mailan, 200.001 PTAtik 350.000 PTArainokoak, eta gorengo mailan, 350.001 PTAtik 500.000 PTArainokoak.

4.– Atal honetan aipatzen diren zigorrez gainera, behar ez bezala eskuratutako kopuruak itzuli egin beharko dira.

*57. atala.*– Zigorrak mailakatzea.

1.– Arauhausteen kalifikazioa egin eta gero, zigor ekonomikoak mailakatu egingo dira, gutxieneko, tarteko eta gorengo mailetan, burututako arauhaustea arindu edo astundu dezaketen egoerak kontuan izanda.

2.– Ondorengoen arabera mailakatuko dira zigorrak:

a) Arauhausleak zuen asmoa kontuan izanda.

b) Arauhausleak pentsatzeko benetan zuen gaitasuna kontuan izanda.

c) Behar ez bezala eskuratutako kopuruaren zenbatekoa kontuan izanda.

d) Euskal administrazio publikoek aldez aurretik egindako errekerimenduak ez betetzea kontuan izanda.

e) Familiako egoera kontuan izanda, batez ere egoera ekonomikoa.

f) Kalifikatutako arauhaustea egin zenetik urtebetearen barruan beste arauhausterik (berdina edo beste era batekoa) egin den kontuan izanda. Arauhauste horiek administrazioaren erabakiaren bidez irmotzat hartuta egon beharko dira.

g) Damutzerik egon den eta zigor-jardunbideari hasiera ematea eragin zuten kalteak konpondu diren edo ez kontuan hartuta, betiere damutzea edo kalteak konpontzea jardunbide hori amaitu baino lehen gertatu bada.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– II. atalburua ezartzeko arauak.

Lege honen II. atalburuan aipatzen diren gizarteratzeko hitzarmenak izenpetuko dituzte udalek, legea indarrean sartzean gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubidea duten pertsona guztiekin, baina gutxika-gutxika egingo da hori, oinarriko gizartezerbitzuek dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak eskaintzen dituzten aukerak kontuan izanda. Dena den, lehentasuna izango dute bazterkeria errazen jasateko arriskua dutenek.

*Bigarrena.*– Euskal gizataldeetako kideak.

Lege honetako 18.1 b) eta 29.1 a) ataletan jasota dauden baldintzak ez zaizkie eskatuko maiatzaren 27ko

su grado medio, de 30.001 a 40.000 PTA, y, en su grado máximo, de 40.001 a 50.000 PTA.

3.– Las infracciones muy graves se sancionarán con multa, en su grado mínimo, de 50.001 a 200.000 PTA; en su grado medio, de 200.001 a 350.000 PTA, y, en su grado máximo, de 350.001 a 500.000 PTA.

4.– Las sanciones a que se refiere este artículo se entienden sin perjuicio del reintegro de las cantidades indebidamente percibidas.

*Artículo 57.*– Graduación de las sanciones.

1.– Calificadas las infracciones, las sanciones económicas se graduarán en los niveles mínimo, medio y máximo teniendo en cuenta las circunstancias que pudieran, en su caso, atenuar o agravar las infracciones cometidas.

2.– Las sanciones se graduarán en atención a:

a) La intencionalidad del infractor.

b) La capacidad real de discernimiento del infractor.

c) La cuantía económica percibida indebidamente.

d) El incumplimiento de requerimientos previos por parte de las Administraciones públicas vascas.

e) Las circunstancias familiares, en particular en lo relativo a su situación económica.

f) La realización en el término de un año, a contar desde la comisión de la infracción calificada, de otra u otras infracciones de la misma o distinta naturaleza que hayan sido declaradas firmes por resolución administrativa.

g) El arrepentimiento y la subsanación de los perjuicios que dieron lugar a la iniciación del procedimiento sancionador, siempre que se hubiera producido antes de la conclusión de dicho procedimiento.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– Normas de aplicación del Capítulo II.

Los Ayuntamientos suscribirán los convenios de inserción regulados en el Capítulo II de esta ley con los perceptores del ingreso mínimo de inserción existentes a la entrada en vigor de la misma de forma progresiva según las posibilidades que se deriven de los medios humanos y materiales de los servicios sociales de base, priorizando las situaciones que puedan generar mayores riesgos de exclusión.

*Segunda.*– Miembros de las colectividades vascas.

El requisito previsto en los artículos 18.1 b) y 29.1 a) de esta ley no será exigible a los miembros de las co-

8/1994 Legearen 11.1 atalean aipatzen diren euskal gizataldeetako kideei (lege hori Euskal Autonomia Erkidegoaz Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanei buruzkoa da). Dena den, aipatutako 11.1 ataleko baldintzak bete beharko dituzte.

*Hirugarrena.–* Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua aldatzea

Urriaren 18ko 5/1996 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, aldatu egin da, hain zuzen ere 16.1 atalean. Honela geratu da atal hori:

«Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua aholkularitza-organo bat da eta Eusko Jaurlaritzaren barruan, gai horretan eskumenak dituen sailari atxikia. Kontseilu horretan ordezkariak izango dituzte bai Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, zein sindikatuek eta enpresarien, erabiltzaileen, gizarte-bolondresen eta gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten profesionalen erakundeek».

*Laugarrena.–*

Lege honetako 13. atalak jartzen dizkion eginkizunen arabera, Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordeak bost urtez behin ebaluatuko du lege hau nola garatzen eta aplikatzen ari den eta, hala badagokio, berraztertzea egoki den. Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordearen txostena Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio.

ALDIBATERAKO XEDAPEN BAKARRA

Eusko Jaurlaritzak lege hau araudi bidez garatzen ez duen artean, gaur egun indarrean dagoen araudia ezartzen jarraituko da, lege honetan jasotako xedapenen aurka ez doan guztian.

INDARGABETZEKO XEDAPEN BAKARRA

1.– Maila bereko edo apalagoko arau guztiak indarrik gabe utzi dira, lege honetan xedatutakoarekin bat ez datorren guztian.

2.– Berariaz indarrik gabe utzi dira ondorengo xedapenak:

a) 2/1990 Legea, maiatzaren 3koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrerei buruzkoa.

b) 200/1989 Dekretua, abuztuaren 31koa, «Euskadi 1993ko Europan» egitarauaren barnekoa den pobreziaren aurkako osoko planaren ondoriozko arlokako neurriak aztertu eta proposatzeko sail arteko batzordea sortzen duena.

c) 25/1993 Dekretua, otsailaren 9koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrerari buruzko maiatzaren 3ko 2/1990 Legea garatzen duena.

d) 26/1993 Dekretua, otsailaren 9koa, Gizarte Larrialdiko Egoeretarako Diru Laguntzak ezartzen duena.

lectividades vascas a que se refiere el artículo 11.1 de la Ley 8/1994, de 27 de mayo, de Relaciones con las colectividades y centros vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre y cuando cumplan los requisitos previstos en dicho artículo.

*Tercera.–* Modificación del Consejo Vasco de Bienestar Social.

El artículo 16.1 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, queda redactado como sigue:

«El Consejo Vasco de Bienestar Social se constituye como un órgano de carácter consultivo, adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente por razón de la materia, en el que estarán representados el Gobierno, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos, así como las organizaciones sindicales y empresariales, las de personas usuarias, las de voluntariado social y las de profesionales que trabajen en el campo de los servicios sociales».

*Cuarta.–*

De acuerdo con las funciones que le encomienda el artículo 13 de esta ley, la Comisión Interinstitucional para la Inserción evaluará cada cinco años el desarrollo, la aplicación y, en su caso, la oportunidad de revisión de la presente ley. El informe de la Comisión Interinstitucional para la Inserción será remitido al Parlamento Vasco.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

Mientras el Gobierno Vasco no proceda al desarrollo reglamentario de la presente ley, se aplicará la actual normativa en cuanto no se oponga a las disposiciones de esta ley.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

1.– Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en la presente ley.

2.– Quedan derogadas expresamente las siguientes disposiciones:

a) Ley 2/1990, de 3 de mayo, de Ingreso Mínimo de Inserción.

b) Decreto 200/1989, de 31 de agosto, por el que se crea la Comisión Interdepartamental para el estudio y propuesta de medidas sectoriales derivadas del Plan Integral de Lucha contra la Pobreza integrado en el Programa «Euskadi en la Europa de 1993».

c) Decreto 25/1993, de 9 de febrero, de desarrollo de la Ley 2/1990, de 3 de mayo, de Ingreso Mínimo de Inserción.

d) Decreto 26/1993, de 9 de febrero, por el que se establecen las Ayudas Económicas a Situaciones de Emergencia Social.

e) Agindua, 1993ko otsailaren 10ekoa, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, maiatzaren 3ko 2/1990 Legea garatzen duen otsailaren 9ko 25/1993 Dekretuan adierazitako baliabideak zehazteko sistema ezartzen duena.

f) Agindua, 1993ko otsailaren 10ekoa, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, gizarte-larrialdiko egoeretarako diru-laguntzak ezartzen dituen otsailaren 9ko 26/1993 Dekretua garatzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Izatezko bikoteen errolda.

Lege honetako 3.1 b) ataleko bigarren lerroaldean aipatzen den egiaztapena, interesatuek izena emateko aukera duten legezko erroldaren bat dagoen kasuetan, errolda horretan emandako ziurtagiriaren bidez egin beharko da.

*Bigarrena.–* Ordezko erregimena.

Lege honetan aurreikusi ez diren egoeretan, ondorengoak ezarriko dira:

–Administrazio-jardunbideari dagokionez, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Komunari buruzkoa.

–Zigortzeko jardunbideari dagokionez, gaiaren inguruan indarrean dagoen legeria orokorrean aurreikusitako arau sustantibo eta jardunbidezkoak.

–Laguntzak emateko erregimenari dagokionez (gizarte-larrialdietarako laguntzak direla eta), diru-laguntza eta laguntzei buruzko araudi orokorra.

*Hirugarrena.–* Araudi bidezko garapena.

Baimena eman zaio Eusko Jaurlaritzari lege hau garatu eta ezartzeko beharrezko xedapenak eman ditzan.

*Laugarrena.–* Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko maiatzaren 22an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

e) Orden de 10 de febrero de 1993, del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, por la que se establece el sistema de determinación de recursos previsto en el Decreto 25/1993, de 9 de febrero, de desarrollo de la Ley 2/1990, de 3 de mayo.

f) Orden de 10 de febrero de 1993, del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, por la que se desarrolla el Decreto 26/1993, de 9 de febrero, por el que se establecen las Ayudas Económicas a Situaciones de Emergencia Social.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Registro de parejas de hecho.

La acreditación fehaciente a que se refiere el segundo párrafo del artículo 3.1 b) de esta ley deberá realizarse, cuando exista un registro legalmente constituido para la inscripción de aquellas situaciones en el que los interesados puedan inscribirse, mediante certificación del mismo.

*Segunda.–* Régimen supletorio.

En lo no previsto en la presente ley serán de aplicación:

–En materia de procedimiento administrativo, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

–En materia de régimen sancionador, las normas sustantivas y de procedimiento previstas en la legislación general vigente sobre la materia.

–En materia de régimen subvencional por lo que afecta a las ayudas de emergencia social, la normativa general de subvenciones y ayudas.

*Tercera.–* Desarrollo reglamentario.

Se autoriza al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente ley.

*Cuarta.–* Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 29 de mayo de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.